

LIBURUAREN SEKRETUA

Mailen Dagorret, 13 urte

Itsasu

1944ko abenduaren 24ko gau ilunean, kamioi bat Pariseko karraketan ibilki da. Etxe baten itzalean, silueta bat agertzen da. Presatua dirudi. Besoetan pakete bat darama. Auzoaren etxean sartzen da, isilik, txirrina jo gabe. Bizpahiru minutu berantago, bere etxeko atea pasatzen du, besoak hutsik eta negarrez. Oren baten buruan, kamioia karrikan gelditzen da eta lau pertsona igotzen dira.

Biharamunean, iratzargailuak jo zuen Dimond jauna iratzartzeko. Gosaldu eta bere ganbarako armairua ireki zuen eta zein izan zen bere ustekabea nini bat ikusi zuelarik:

– Maitea, zatoz, oihukatu zion bere emazteari. Ume bat gure armairuan gordea izan da!

Dimond anderea laster arribatu zen bere senarraren ondora. Oihu ttipi bat bota zuen haur ttipia ikustean. Besoetan hartzerakoan, gutun bat ikusi zuen oihalen artean gorderik.

“Abenduaren 24a,

Dimond jaun-andereak,

Zuen etxeko armairuan utzi dudan haurra enea da. Jakin dugularik alemaniarrek juduak herio zelaietara eramaiten zituztela, lagun batzuk gorde gaituzte nire senarra eta ni. Bost urte egon gara etxeko selauruan gorderik. Han sortu da ene haurra, urrian. Baina barazki saltzaileak gure lagunak lehen baino gehiago erosten zutela ohartu dira eta gure etsaiei erran diete. Horregatik, ene haurra zuen etxean gorde dut, alemaniarrek ez hartzeko gisan. Guido izena du eta hiru hilabete ditu. Zuekin atxikiko duzuela espero dut.

Sarah Salresh.”

Urte bat berantago, Bigarren Munduko Gerla bukatu zen. Dimond jaun-andereak haurra berena zela erraiteko adostu ziren. Haurrak bere salbatzaileak benetako gurasoak zituela uste zuen.

Gau batez, hiruak afaltzen ari zirela, norbaitek atean jo zuen. Dimond jauna irekitzera joan zen. Sartzean gizon mehe bat zegoen. Ileak arrasatuak zituen. Haren begi ilunek jasan zuen mina adierazten zuten. Ahots ilun batekin etxeko nagusiari erran zion:

– Mark deitzen naiz, Sarah eta Giozuè Salresh-en lagun bat naiz. Nire emazteak eta nik gure lagunak gorde genituen juduak mehatxatuak zirelarik. Maleruski, alemaniarrek herio zelaietara eramán gintuzten. Giozuè-rekin nengoen lo gelan. Egunero hau idatzi du, bere semeak irakur dezan han-

dituta. Hau izan da bere azken nahia. Zoritxarrez, askatzearen bezperan hil da.

Dimond jaunari liburu bat eman zion.

– Mathieuri gure semea ez dela erranen diodalarik liburu hau erakutsiko diot. Oraindik biziki ttipia da, beraz, zenbait urte goaitatuko ditut berri hau hari aitortzeko.

Etxeko gizona bere emaztearekin bakarrik gelditu zenean, berri txarra erran zion:

– Baina ez gara behartuak mutilari erraitera. Ez badiogu liburu hori ematen, ez du sekula deus jakinen. Betidanik haur bat ukan nahi izan dugu, egia entzuten badu betirako galduko dugu.

– Nahi nuke erraiten duzuna segitu, baina Mathieuren aitaren azken nahia izan da bere semeak jasan duen bortizkeria eta mina jakitea. Hori ezin diogu errefusatu, nahiz eta gure seme bakarra galtzea arriskatzen dugun...

Hilabeteak pasatu ziren, urte bat, bi urte... Mathieuk 14 urte zituen eta bere azken urtea pasatzen zuen kolegioan. Begi urdin argiak zituen eta ile marroiak. Bere irriak trufa aire bat hartzen zuen. Ikasle ona zen gai guzietan. Bere burasoak biziki maite zituen. Hala ere, batzutan aurpegi iluna jartzen zuten gai batzuk aipatzean. Bizpahiru urte lehenago bere eguberriko opariak xerkatzen zituela bere aitamen ganbararen armairuan, liburu bat aurkitu zuen. Haren azala marroia zen. Orriak zaharrak, horiak eta zikinak. Lehen orrian idatzia izan zen eguna ezarria zen: abenduaren 25a, 1944. Irakurtzen hasiko zelarik, bere aita

gelan sartu zen. Liburua ikusi zuelarik zurbil egon zen. Bortizki liburua eskuetatik hartu zion eta hitzik erran gabe atera zen. Geroztik, gerlari eta juduei buruzko azalpenak galdetzen zituelarik, bere burasoek aurpegi iluna jartzen zuten.

Mathieu etxera itzuli zen egun kargatu baten ondotik. Sartzearen aitzinean gizon ezezagun bat zegoen bere aita mokokatzen. Mutil gaztea zuhaitz baten gibelean gorde zen haien eleketa entzuteko gisan.

– Beste aldian erran nizun liburua eman behar zeniola. Orain zailegia zaizu egia aitortzea. Emaiozu liburua, horrela deskubrituko du juduek, bere familiak, jasan duen bortizkeria eta mina.

Hitz hauekin, etxetik atera zen. Bizpahiru minutu geroago, bere aitak atea itxi zuela ikusi eta gizon arrotz hura segitu zuen hirian gaindi. Gizona etxe zahar batean sartu zen. Mathieuk murrua eskalatu zuen, leiho ttipi bat arte. han zen! Bere trikota kendu zuen eta besoan zuen zerbaiti begiratu zion begitarte haserretuarekin. Mutil gazteak gizonaren begiak segitu zituelarik, ikusi zuenak goragalea eman zion. Besoaren azalean zenbaki bat markatua zuen: 27. Azala erre zirudien, aspaldidanik egina izan balitz bezala. Armairuaren gainean izar hori zahar-zahar bat zegoen. Idatzia zena ikusezina bazen ere, Mathieuk asmatu zuen: JUDUA.

– Mathieu, gakoena bila joaiten ahal zira gure logelarat?, galdetu zion Dimond andereak. Ez dakit non utzi ditudan, xerka itzazu xoko guztietan!

Gakoak ohe gainetik hartu zituen eta gelatik aterako zen mutil gaztea, kutxa ttipi bat ikusi zuelarik bere aitaren galtzerdien artean. Kutxa hartu eta gakoaz itxia zela konturatu zen. Eskuetan zituen gako guziak entseatu zituen. Gako ttipi beltz batek libratu zuen. Mathieuk ireki zuen eta ttipitik amesten zuen liburua agertu zen. Lehen orri zimurtua itzuli zuen eta irakurtzen hasi zen:

“Abenduaren 25a, 1944

Egun on Guido maitea,

Ez dakit eguna ala gaua denez zuretzat, baina nagoen tokian oso iluna da. Badakit irakurriko nauzularik handitua izanen zarela, baina hala ere, idazten dizut, etxean banengo bezala. Atzo gauean, gordetzen gintuzten lagunek erran digute barazki saltzaileek salatu gintuztela alemaniarrei. Zure amak, segidan, auzoaren etxean gorde zaitu. Etxerat heldu orduko, bi alemaniar sartu dira eta gure jantzi batzuk hartzeko agindu digute. Gure bi lagunak, Mark eta Sophie, geldituak izanak dira gurekin batean, gorde gintuztelako. Gure zaku ttipiekin, kamioi batetara igo gara. Jadanik hogeit hamar pertsona zeuden. Denak elgarri tinkatuak gara. Toki ttipi bat atzeman dut eguneroko honen idazteko. Ene ondolan, zure amak besarkada bat igortzen dizu.

Giozuè Salresh.”

“Abenduaren 27a, 1944

Kaixo Guido,

Kamioian pasatu ditugun bi egunak izugarri txarrak izan dira. Bidaia guztian, ez digute jatekorik

eman. Egunero bizpahiru pertsona hil dira. Zure amatxi, biziki ahula zenez, ene besoen artean zendu da. Gaur goizean geltoki batean gelditu gara. Urrunean trenaren muturra ikusten zen. Igo baino lehen, denak lerroan emaiteko agindu digute eta gure izen-deiturak eskatu dizkigute. Bagoiaren barnean berrogeita hamar bat judu gara. Denak tinko-tinko gelditzen gara mugitu gabe, mintzatu gabe. Trenaren txistua bakarrik entzuten da artetan. Gure lagunaren emazteak, Sophiek, ez tul txar bat harrapatu du eta ez dakit sendatuko denez. Eramaiten gaituzten tokira arribatuko garelarik berriro idatziko dizut.

Giozuè Salresh.”

“Urtarrilaren 1a, 1945

Egun on gizon,

Bost egun pasatu ditugu bagoi horretan. Eguerditan Auschwitz herio zelaira arribatu gara. Parisen kurrutzen zen zurrumurrua egiatik hurbil zen. Trenetik jautsi gaituzte eta berriro bata bestearen gibelean, lerroan ezarri gaituzte. Gizonak emaztekietarik berexiz; ahulak, pertsona zaharrak eta haurrak besteetarik bereixi dituzte eta eraikin bati buruz eraman dituzte. Mark-en emaztea haiekin joan da. Bakoitzari pijama baten antzeko jantzi bat eman digute zenbaki batekin lotua. Bat-batean, ene aitzinean norbait entzun dut oihukatzen. Ez duzu sekulan asmatuko zer gertatzen den. Burdin bat berotzen dute eta zure besoen gainean zure zenbakia markatzen dizute. Larru errea usaintzen

da. Gizon batzuk trenputxartu dira. Ene zenbakia 22a da eta Mark-ena 27a...

– Mathieu, heldu zira?, oihukatu zion amak.

– Bai, zaude istant bat!

Liburua kutxan ezarri zuen zalu-zalu eta gako tti-piarekin itxi. Orain bazekien non zen liburua. Baina gauza batek arrangurutzen zuen. Liburuan aipatua zen Mark hura eta gizon arrotz hura ber pertsona ote ziren? Eta nor ote zen Giozuè? Guido?

Maiatzaren 8a zen. Mutil gaztea bere burasoekin elizara joan behar zen, Bigarren Munduko Gerla bukaera ospatzen zuen zeremoniara. Bere amak autoko gakoak eskuetatik hartu zizkion mutikoari, ilargitan zelako. Elizara heltzean, apezak biltzarrari erran zion:

– Bigarren Munduko Gerlan hil ziren Pariseko pertsona guziak izendatuko ditut: July Hamsetz, Mary Teinz, Sophie Delawitz, Sarah eta Giozuè Salresh... Mathieuk zotin egin zuen. Liburuko Mark-en emaztea Sophie, Sarah eta Giozuè Salresh, egunkaria idazten zuena, hiruak hil ziren. Informazio bat gehiago lortu zuen gazteak: hiru juduak Paristarrak ziren eta liburuak egia kontatzen zuen.

Biharamunean, Mathieu kolegiara joan zen autobusez. Goizean, historia kurtso bat zuten eta juduei buruzko xehetasun batzuk galdetu nahi izan zizkion irakasleari:

– Primms anderea, herio zelaietan zaharrek, hurrek eta pertsona ahulduak ez zuten lan egiten.

Beraz, non egoiten ziren besteek lan egiteko denboran?

Irakaslea isilik egon zen denbora batean.

– Mathieu, jakin behar duzu, ez zela batere joko bat aro horretan. Ezertarako balio ez zutenak, gas ganbaretara eramanak ziren. Alemaniarrek gela hesten zuten eta dutxa batzuetatik gasa igortzen zuten. Denbora baten buruan, jendea itotzen zen!

– Baina milaka hil badira, gorputz guziak norat eramanak ziren?

– Gelatik ateratzen zituzten eta meta bat egiten zen herio zelaiko xoko ezezagun batean. Multzoa handitzean, gorputz bakoitza labe baten barnean ezartzen zen errexago eta lasterrago suntsitzeko.

Bi egun goaitatu behar izan zituen, juduaren istorioa segitzeko. Bere aitamak erosketak egitera joan zirenean, Mathieuk liburua hartu zuen eta bere ganbaran giltzatu zen.

“Burdin bat berotzen dute eta zure besoaren gainean zenbakia markatzen dizute. Larru errea usaintzen da. Gizon batzuk trenputxartu dira. Ene zenbakia 22a da, Markena 27a. Ganbara ttipi batzuetara eraman gaituzte. Oheak bata bestearen gainean ezarriak dira. Bizpahiru oren geroago, gizon multzo bat gelan sartu da, akitua. Berehala lokartu dira, afari gisa zuten ogia jan gabe. Zer egiten ote dute egun osoan, zazpitan hain akituak izaiteko? URTE BERRI ON, SEME!

Giozuè Salresh.”

“Urtarrilaren 2a, 1945

Egun on semetxo,

Egun ikusi dudana ene heriotza ordua arte oroituko naiz. Oroitzen zara erran dizudala zaharrak, haurrak eta pertsona ahulduak besteetatik berexiak zirela? Irakur ongi zer gertatu zaidan... Goizean, alemaniar batek 6:30tan iratzarri gaitu. Mark eta ni deitu gaitu zenbakien bidez eta hura segitzeko agindu digu (berrarik alemanera ikasi nuela!). Sophie eta beste juduak eraman zituzten eraikinera eraman gaitu. Gela baten atea ireki baino lehen, erran digu ikusiko ditugun gauza guziekin meta bat egiteko eta beste gelan diren labeetan ezartzeko. Mark eta biok beldur ginen. Ez genekien zer aurkituko genuen. Ez duzu sekulan sinetsiko egia erraiten badizut, baina ez dio axolarik. Gela gorputzez bete zen. Aurpegi guziek beldurra erakusten zuten. Negarrez ari nintzen sarztearen aitzinean, oihu bat entzun dudalarik: Mark zen. Gorputz baten aitzinean zegoen. Bere besoetan hartu zuen eta kantatuz hila besarkatu zuen. Sophie Delawitz, Mark-en emaztea, beste hainbat judurekin gela horretan hil zen! Haur gazte batzuk baziren beren aitaxiri lotuak, ama batek bere ninia besoetan zuen... Bizirik gabeko gorputz guzi haiek labeetan sartu ditugu eta besteekin lan egitera itzuli gara.

Giozuè Salresh.”

“Otsailaren 15a, 1945

Kaixo Guido,

Barka goizago ez idaztea, baina arratsean hain akitua naiz, usu ezin baitut idatzi. Egunero 6:30eta-

tik 20:00etarat lan egiten dugu, objektu pisu batzuk labeetara eramaiten ditugu. Goizero judu batzuk herio zelaietara arribatzen dira. Marken eta nire lana da gorputzak labeetarat eramaitea. Aldi guztiz, malko bat jausten zaio Marki bere emazteaz oroitzerakoan. Gas ganbaratakoetz bestalde, eritasunez hil direnak ere biltzen ditugu. Sarah ez dut oraindik ikusi. Esperantza ematen dit, bizirik dela erakusten duelako.

Giozuè Salresh.”

– DRIING!!!

Ateko txirrinak jo zuen. Mathieuk liburua gorde zuen bere gordelekuan eta irekitzera joan zen. Gurasoak berehala sartu ziren erosketak besotan. Liburu horri buruz xehetasun gehiago biltzeko bere buruan muntatu zuen plana martxan eman zuen. Biharamun goizean, eskolarik ez baitzuen egun osoan, urtekarian informazio bat bilatu zuen:

DELAWITZ Mark tel: 0146638655
(Litte 2, Seraphin Caulin, PARIS 75000)

Liburuko Mark eta Parisen bizi zen pertsona arrotz hura pertsona bera zela segurtatu nahi zuen.

– DRING! DRING! DRING!

– Bai, Mark Delawitz naiz.

– Egun on, Delawitz jauna. Mathieu Dimond dut izena eta informazio batzuk eskatu nahi nizkizuke. Ene burasoen ganbaran, liburu bat atzeman dut. Auschwitz herio zelaian idatzia izan da 1945ean.

Giozuè Salresh deituriko gizon batek bere bizia kontatzen du egunkari baten bidez. Ene azalpenak onak badira bere laguna zira eta 27 zenbakia markatua duzu beso baten gainean, ezta?

– Bai egia duzu, nik ditut Giozuè eta Sarah gorde bost urtez. Baina zein informazio nahi duzu?

– Gizon hori nor zen? Zergatik gorde dit nire aitak liburua urte guzi hauetan? Zergatik ez diete ene galderei erantzuten gerlari buruz liburua aurkitu dudan egunetik?

– Nire erantzunak luzeegiak dira telefonoz erraiteko. Nahi badituzu zoaz Auschwitz herio zelaira, astearteko. Sartzean elkartuko gara. Har ezazu trena bidaiatzeko. Adio, Mathieu!

Mathieuk telefona pausatu zuen.

Maiatzaren bigarren igandean, mutiko gazteak Auschwitz-era eramane zuen trena hartu zuen. Liburua ireki zuen eta aitaren azken egunak irakurri zituen:

“Martxoaren 17a, 1945

Kaixo seme,

Berri txar batekin agurtzen zaitut gaur. Zure ama atzo gauean hil da. Bere ganbaran zegoen emazteki batek ekarri du bere gorputza besteekin ezartzeko. Besoaren gainean zenbaki bat markatua zuen berak ere. Bera ez ikusteak esperantza emaiten zidan, baina zuretako bizirik egon behar naiz orain. Ezin duzu pentsatu zein zilo handia dudan bihotzean. Agian, alemaniar bat ez da ohartu judu zarela, bestenaz deusentzat bizi naizela pentsatuko dut.

Giozuè Salresh.”

Mathieuren etxean, Dimond jauna eta anderea urduri ziren. Haien semea igandetik ez zen agertu ez etxean, ez eskolan. Haien kezka handitu zen, haien semea aitaren liburuarekin desagertu zela ohartu zirelarik. Polizia deitu zuten eta ikerketak hasi ziren. Baina mutikoak ez zuen aztarnarik utzi. Guraso gaixoak kezkatuak eta biziki penatuak ziren. Hala ere, astearte goizean, telefonoak jo zuen:

– Egun on, Mark Delawitz naiz...

– Zuk diozu liburua erakutsi!, ulertu zuen aita gaixoak. Nora eraman duzu?

– Ez duzu batere arrazoi, zure errana segitu dut. Zure semeak liburua bakarrik atzeman du. Baina ez daki dena. Aldizkari osoa irakurri du, ez du ulertu idazlea bere aita dela eta Guido hura bera dela. Igande goizean telefonatu dit informazio gehiago ukaiteko. Hitzordua egun dugu 8:00etan Auschwitz-ko herio zelaian. Uste dut momentua dela sekretu guzia kontatzeko...

“Apirilaren 30a, 1945

Kaixo Guido maitea,

Uste dut idazten dizudan azken aldia dela. Duela zenbait egunetik hona, alemaniarrek beldurtuak direla iduri du. Lagun batek, alemanera ontsa dakiena, kontatu digu bi alemaniar entzun dituela kalakan. Batek besteari erraiten zion Amerikarrak heldu zirela juduen askatzera. Hau berri ona! Gerla bukatu da! Baina alemaniarrek hemen diren

pertsona gehienak hil nahi dituzte beren etsaiak arribatu baino lehen. Egunero dozena bat kamioi Auschwitz-etik ateratzen dira eta hutsik itzultzen, berriro juduz beterik joaiteko. Beste aldian, nire berri ukaiten baduzu, etxean izanen dela espero dut. Ikus arte! Giozuè Salresh.”

Mathieuk liburuaren azken orria itzuli zuen. Bere bihotza taupadaka ari zen. Nola hil zen gizon hura? Kamioi batek eraman ote zuen? Alemaniar batek hil ote zuen eskapatzeko momentuan? Nor ote ziren Guido eta Giozuè? Baina galderen zerrendaren gain-gainean galdera bat zegoen: zer ote zuen berak ikustekorik istorio horrekin?

Trena geltokian gelditzean, mutikoa jautsi zen. Taxi batek hartu zuen eta herio zelaira eraman. Mathieuk sarrerako txartela pagatu zuen eta Giozuèren testuaren artetik ezagutu zituen murrak bisitatu zituen. Zuhaitz baten azpian, etzana, ikusi zuen Mark Delawitz. Poliki hurbildu zen gizonarengandik eta mintzatzera ausartu zen.

Mark-ek mutiko gazte hori hurbiltzen ikusi zuelarik, hain gazte, baina hain zahar ere, agurtu zuen eta, ondoren, liburuaren sekretu guztia ezagutarazi zion...